

**SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUAK 2016ko MARTXOAREN 7an
EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan, arestian aipatutako eguneko hamaikak eta hogeit hamar minutu direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

KONTSEILUBURUA: Danel Bringas Egilior jn.

KONTSEILUKO KIDEAK:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Jonatan Sánchez Fernández jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.
Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea.
Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea.
Luis Angel Urdiales Villanueva jn., Udal Talde Popularra

Zuzendaria: Carlos Moran Arostegi

Kontu-hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1. SERANTES KULTUR ARETOAREN AURREKONTU PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA 2016. URTEKO EKITALDIRAKO.

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta 2016. urteko ekitaldirako autonomiadun erakundearen aurrekontu proiektuari buruzko alderdi nagusien berri eman du, Kontseiluko kideei aurretik bidalitako dokumentazioaren arabera.

Lucena Balda jaunak galdetu du zergatik igo den 5000 euro eszena ikuskizunen kontratazioa.

Zuzendari jaunak adierazi du bere garaian oso murriztu zen diru-saila dela, baina aurreikuspenak egokiak direla aukera gehiago emateko.

Lucena Balda jaunak galdetu du zenbat diru erabiliko den elizako organa konpontzeko.

Kontseiluburu jaunak erantzun du aurreikuspena dela bi aurrekontu-ekitalditan 10.000 euro izatea. Konponketa guztira 120.000 eurokoa izango dela gaineratu du, baina Udal-administrazioak 20.000 baino ez duela jarriko bi urtetan. Elkarlana antolatzeke figura aurkitu beharko da, zein Gotzaintzarekiko hitzarmen gisa aurreikusten den organoaren titularra delako, eta edonola ere udal talde politiko guztien adostasuna behar izango da, guztien bermea izan ezean ez delako inolako pausurik emango.

Sánchez Fernández jaunak uste du egin beharreko lehenengo gauza hitzarmena eta elkarlanerako baldintzak lotzea dela, aurretiko lanik egin gabe 20.000 euro erabiltzeari ez deritzotelako egoki. Bere ustez lehenengo hitzarmena lortu eta gero aurrekontuko diru-izendapena eman beharko litzateke.

Urdiales Villanueva jaunak gauza bera uste du eta adierazi du udal ekarpenaren diru-izendapenak ez duela zentzurik aurretiko hitzarmena eta bere baldintzak ezagutu gabe.

García Sáez jaunak adierazi du lehen neurria Gotzaintzarekiko bilera izan beharko lukeela, zein iritzi duen jakiteko, eta gero udal talde bakoitzaren iritzia jaso.

Kontseiluburu jaunak azpimarratu du asmoa konponketan elkarlana burutzeko baldintza guztiak aurretik lotzea dela, eta ez dela besterik gabe egingo, parte biek egin behar izango dituztelako ekarpenak zentzu berean.

Sánchez Fernández jaunak azpimarratu du ez izendatzeko zenbatekorik hitzarmenaren alderdi guztiak lotu aurretik. Izan ere, 20.000 euroak erabil litezke beste zerbaitetarako adostasuna lortu ezean.

Zuzendari jaunak adierazi du hitzarmenaren bidez organoa elizan denbora tarte luze batez egongo dela bermatu behar dela eta kultura-ekitaldietara edo prestakuntzarako ere erabili ahal izatea.

Batzordeburu jaunak adierazi du hitzarmena mahai gainean dagoela bilera izango dela eta Gotzaintzaren erantzun zehatza jasotakoan, eta horren ondoren, udal taldeek duten iritzia eskatuko dela.

Lucena Balda jaunak adierazi du horrela jokatzuz gero, lehenengo bere alderdiaren iritzia eskatu beharko duela eta ezin duela bere hitza eman.

Beste gai batera pasatuta, Sánchez Fernández jaunak galdetu du bazkideen txartelen diru-sarreraren aurreikuspenak zergatik izan duen jaitsiera arina eta bilakaera normala den.

Zuzendari jaunak erantzun du gaur egun 3.000 bazkide inguru daudela eta oso zaila dela gehiago izatea. Gainera, oso kontu dinamikoa da, etengabe daudelako altak eta bajak hainbat arrazoiengatik. Azken batean, aurreko ekitaldirako egin zen aurreikuspena errepikatu da.

Sánchez Fernández jaunak uste du aurrekontu-dokumentu hauek zailak direla ulertzen, aurreikuspen eta gastatutako zenbateko desberdinak nahastuta daudelako. Gainera, kontzeptu bakoitza banandu beharko litzatekeela gaineratu du, adibidez herriko jaien diru-sailean, bakoitzarentzat zenbat diru esleitzen zaion eta zenbat azpiegituretan, zenbat jardueretan adieraziz.

Zuzendari jaunak erantzun du oso diru-sail biziak direla, egoeraren arabera gorabeherak izan ditzaketenak zentzu batera edo bestera, eta urtetik urtera aldatzeko joera dutela.

Bukatzeko, Sánchez Fernández jaunak galdetu du elkarlanerako hitzarmenen Diru-laguntzen diru-saila zertarako den.

Zuzendari jaunak erantzun du izendun hitzarmenak direla, erakunde onuradun bakoitzari emandako diru-laguntza zehaztuta daudelarik. Zuzendari jaunak gaineratu du urtero errepikatzen diren aurreikuspenak direla eta oraingoan dauden berrikuntzak "Santurtzine" jaialdirako 1.000 euroak eta elizako organoa konpontzeko eman daitekeena direla.

Horri buruzko beste parte hartzerik izan ez denez, Artezkaritza Kontseilua gaiaren jakinaren gainean dagoela ulertzen da.

2. SERANTES KULTUR ARETOAREN AURREKONTU PROIEKTUA PROPOSATZEA ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2016. URTEKO EKITALDIRAKO.

Kontseiluburu jaunak gaia bozkatzeari ekin dio. Kontseiluburuak eta EAJ-PNV Udal Taldeak baiezko botoa eman du (3 boto), PSE-EE-PSOE, Bildu eta PP Udal taldeak berriz, abstenitu egin dira (3 boto) eta Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldeak ordea, kontrako botoa eman du (boto 1). Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak Serantes Kultur Aretoaren 2016. ekitaldirako Aurrekontu Proiektua onartzea erabaki du.

Sánchez Fernández jaunak kontrako botoaren arrazoia eman du eta esan du aurrekontu hauek sortzen ezin izan duela parte hartu eta

erabaki hau ez dela loteslea, benetako onarpena Osoko Bilkurak egingo duela.

3. SERANTES KULTUR ARETOAREN LANPOSTUEN ZERRENDA ETA LANGILEEN PLANTILLAREN PROPOSAMENA, ONESPENA ETA KULTURA ETA EUSKARA ARLORA IGORTZEA BIDEZKOTZAT JOZ GERO.

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du eta 2016. urteko ekitaldirako autonomiadun erakundearen langileen plantilla eta lanpostuen zerrendari buruzko alderdi nagusienen berri eman du, aurreko ekitaldiko datuekin inolako aldaketarik ez dagoela azpimarratuz.

Sánchez Fernández jaunak galdetu du Novia Salcedo Fundazioarekiko hitzarmenean aurreikusten den lanpostua sartuta dagoen.

Zuzendari jaunak erantzun du ez dela lanpostua, baizik eta erakunde horretako ikasleentzako praktiketako beka eta azken aldiari egiten ari dela.

Sánchez Fernández jaunak galdetu du lanpostuen zerrenda autonomiadun erakundeko langileekin batera adostu den eta plantilla handitzea beharrezkoa den, zenbaitetan langileak lanez gainezka daudela ikusi baitu.

Zuzendari jaunak adierazi du hobe litzatekeela langile gehiago izango balira, baina orain arte lana aurrera atera dutela eta, edonola ere, horri dagozkion neurriak langile guztien artean hartzen dituztela.

Sánchez Fernández jaunak bukatzeko adierazi du autonomiadun erakundeko langile kopurua handitu beharko litzatekeela, Serantes Kultur Aretora lan karga handirik ez duten udal langileak lekualdatzeko proposatuz.

Eta beste parte hartzerik egon ez denez, gaia bozkatu egin da. Kontseiluburuak eta EAJ-PNV Udal Taldeak baiezko botoa eman du (3 boto), PSE-EE-PSOE, Bildu eta PP Udal taldeak berriz, abstenitu egin dira (3 boto) eta Sí Se Pude Santurtzi Udal Taldeak ordea, kontrako botoa eman du (boto 1). Hortaz, artezkaritza kontseiluak Serantes Kultur Aretorekin lanpostuen zerrenda eta langileen plantillaren proposamena onartzea erabaki du.

Sánchez Fernández jaunak kontrako botoaren arrazoia eman du eta esan du erakundearen plantilla handitzeko beharra ikusi delako eta ez delako proposamenean agertzen.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasiera zehaztutako egunean, goizeko hamakak eta berrogeita hamabost minutu direnean. Eta nik, Idazkari Eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.

OE
KONTSEILUBURUA,